

HITZALDIA: ESPAZIOA HEZKUNTZAREN ZERBITZURA

MAIATZAREN 26AN, 18:00ETAN KULTURA ETXEAN

Laudio Ikastolak “Espazioa hezkuntzaren zerbitzura” hitzaldia eskainiko du maiatzaren 26an, asteazkena, 18:00etan Laudioko Kultura Etxeko Arraño aretoan Aitor Axpe arkitektoaren eskutik.

Aretoak toki kopuru mugatua duenez, hitzaldian parte hartzeko gonbidapena eskatu beharko da aurretik ondorengo formularioan:

izena eman 

ERALDAKETA PEDAGOGIKOAREN ERRONKA

Laudio Ikastolan eraldaketa pedagogikoan murgildu gara azken ikasturteetan. Erronka horrek gure egunerokoaren hainbat eremutan berrikuntza nabariak eragin ditu eta ez dira ohiko jarduera pedagogikora mugatzen ari. Haur Hezkuntzan adibidez, begi bistakoak dira eraldaketa horrek bultzatutako espazioen antolaketa eta erabilpen eredu berriak.

Izan ere eraldaketa Ikastolako hezkuntza etapa a zein zerbitzu guztietara zabaldu dugu eta Haur Hezkuntzan jorratzen hasitako bidea hezkuntza komunitate osoak parte hartzeko aukera bihurtzera goaz.

ESPAZIOA HEZKUNTZAREN ZERBITZURA

Prozesua abiatzeko, Aitor Axpe arkitektoa gonbidatu dugu espazioaren eta hezkuntzaren arteko harremanari buruzko hausnarketa partekatuz.

Hitzaldian, Axpek hezkuntza-espazioak historian zehar, gaur egunera arte, izan duen bilakaera aurkeztuko digu, baita espazio horiek gure ikasleen garapenean eta hezkuntzan duten garrantzia ere. Era berean, metodologia berriek eskatzen dituzten es-



pazio arkitektonikoak azalduko ditu, ikasleak beren hezkuntzaren eta ikaskuntzaren benetako protagonista izan daitezzen.

AITOR AXPE

Aitor Axpe arkitektoa eta Oskol arkitekturen tailerreko kidea da. Arkitektura jendarrea eraldatzeko tresna garrantzitsua dela jabetuta, hezkuntzari zerbitzu eman nahi izan diote azken urteetan, egun pil-pilean dauden pedagogia berritzaileek merezi eta behar duten espazioa lagun izan dezaten. Proiektu horien garapenean eta diseinuan garrantzitsua da ikastetxe bakoitzeko komunitatearen parte-hartzea. Proiektu integral baten baitan tailerrak, prestakuntza eta gaiari buruzko hitzaldiak eskaintzen dituzte.